

(Castellano abajo)

BERRI TXARRAK TALDEAREN ADIERAZPENA:

Aragoiko PPK, irailaren 25ean Zaragozan ospatuko den OTANen eta beronen maniobra militarren aurkako kantaldian BERRI TXARRAKek kantatzea debekatzea eta taldekideok Aragoien pertsona "Non Grata"tzat hartzea eskatu duela-eta, zenbait komunikabidek gure izen onaren aurka abiarazi duten kanpainari erantzunez, taldekideok honakoa adierazi gura dugu:

- Gogor gaitzetsi eta salatzen dugu pertsona guztion oinarrizko eskubidea den Adierazpen Askatasunaren aurkako eraso berri hau. Gure kanten bitartez beti egin dugu Adierazpen Askatasunaren alde eta etorkizunean ere berdin jokatu dugu.

- 20 urtean ez dugu egundo inongo auzitegiren ezelango salaketa, leporatze edota zigorrik jaso. Horrenbestez, hainbat komunikabidek egozten dizkigutenak oinarri juridikorik gabeko salaketak direla ziurtatu gura dugu. Salaketok, gure taldearen jarduna gainditzen duten ekinbideak dira, beste sortzaile askori kaltea itzela eragin diotenak eta denboran gehiegi luzatzen ari direnak. Bada garaia antzeko jokabideei amaiera eman diezaiegun.

- Era berean, Berri Txarrak arerio ideologikoei eraso egiteko erabiltzea arbuiatzen dugu (bai beste alderdi politiko zein eragile sozialei). Gure ustean, estrategiok etekin elektorala lortzeko baino ez dira eta eremu politikoko alderdi atzerakoienek sustatzen dute. Gu ez gara inoren txotxongilo, ez dugu inolaz ere gurea ez den gatazka batean erabili gaitzaten onartuko. Aragoiko PPren eskaera erabat zentzugabea eta neurritz kanpokoa da, Berri Txarrakek PPK gobernatzeko dituen hainbat udalerritan edota PPren beraren esku dagoen telebista zein irrati saio publikoetan parte hartu baitu ezelango arazo barik

- Gure kantak mundu osoan eskaintzen jarraitzeko asmo irmoa adierazi gura dugu, baita horren abegikor hartu gaituen Zaragozan ere. Gure zalei zor gaitzaizkie.

- Eskerrak eman gura dizkiegu orduotan jaso ditugun elkartasun keinu guztiei. Eskerrik asko denoi.

“Gu isil gaitzakezu
gure kantuak ez “

www.berritxarrak.net

[facebook.com/berritxarrak](https://www.facebook.com/berritxarrak)

twitter.com/berritxarrak

[instagram.com/berritxarrak](https://www.instagram.com/berritxarrak)

[youtube.com/btxchannel](https://www.youtube.com/btxchannel)

<https://youtu.be/2FPqWgxUA4U>

COMUNICADO DEL GRUPO BERRI TXARRAK

Ante el ataque mediático y difamatorio del que estamos siendo víctima estos días a raíz de la petición por parte del PP de Aragón de prohibir nuestra presencia en el concierto benéfico que se celebrará En Zaragoza el próximo 25 de Septiembre en contra de la OTAN y sus maniobras militares, además de su propuesta para que se nos declare personas non gratas en Aragón, Berri Txarrak manifestamos lo siguiente:

-Lamentamos y denunciemos este nuevo intento de censura que representa un ataque al Derecho Fundamental de la Libertad de Expresión que siempre hemos defendido y seguiremos defendiendo con nuestras canciones.

-Berri Txarrak jamás ha recibido denuncia, imputación o condena formal alguna en mas de dos décadas de carrera, por lo que las practicas que se nos atribuyen en varios medios adolecen de base jurídica; más bien responden a un plan de criminalización a mayor escala que lamentablemente se esta alargando demasiado en el tiempo y afecta a más artistas.

-Así mismo, denunciemos el uso interesado que se pueda hacer de nuestro nombre para atacar a terceros (véase partidos políticos o asociaciones), en lo que entendemos una clara estrategia electoralista de la cual nos demarcamos y tras la cual se esconde el ala más reaccionaria del espectro político. No estamos dispuestos a ser la marioneta política de una guerra que no es la nuestra. Basta con recordar que en el último año hemos actuado en multitud de municipios gobernados por el PP, además de haber sido invitados a actuar en RTVE (con excelente audiencia, por cierto).

-Reiteramos nuestra firme intención de proseguir con nuestra inminente gira, incluída Zaragoza, donde siempre se nos ha tratado tan bien. Entre otras cosas se lo debemos a nuestro publico.

-Agradecemos toda la solidaridad recibida estos últimos días, eskerrik asko.

"Ladran, luego cabalgamos"

Comunicación: Carola 646 536 786

